
Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad pública del Gobierno Vasco
EUSKADIKO
ORKESTRA
22—23
Pasioa *Pasión*
→ Prokofiev · Dzenitis · Korngold
MAIATZA **9** MAYO
**19:30**
**PAMPLONA / IRUÑA**
Baluarte
**euskadikoorkestra.eus**

# EUSKADIKO ORKESTRA

**Zuzendari Titularra** / Director Titular

**Robert Treviño**

**KONTZERTINOA**
**CONCERTINO**
Hannah Perowne

**I BIOLINAK** / VIOLINES I
Waldemar Machmar (1)
Xabier de Felipe (3)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

**II BIOLINAK** / VIOLINES II
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (3)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Luxi Lavielle (4)
Kamran Omarli
Ricardo Ruiz
Igor Torre

**BIOLAK** / VIOLAS
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (3)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

**BIOLONTXELOAK**
VIOLONCHELOS
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (3)
Natalia Díaz
Ángela Escauriaza (4)
Javier Escrihuela (4)
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

**KONTRABAXUAK**
CONTRABAJOS
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Guangyao Zhao (3)
Victor Bogdanov
Marc Sirera
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

**FLAUTAK** / FLAUTAS
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

**OBOEAK** / OBOES
Silvia Esain (2) (4)
Hervé Michaud (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont

**KLARINETEAK**
CLARINETES
Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

**FAGOTAK** / FAGOTES
Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

**TRONPAK** / **TROMPAS**
Marcos Cruz (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Adrián García Carballo
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

**TRONPETAK** / TROMPETAS
Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

**TRONBOIAK** / TROMBONES
Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Daniel Ruibal

**TUBA**
Oscar Abella (2)

**TINBALAK ETA PERKUSIOA**
TIMBALES Y PERCUSIÓN
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi
Xabier Peña

**HARPA** / ARPA
Iván Bragado (2)

(1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
(2) Bakarlaria / Solista
(3) Lehen tuttia / Primer tutti
(4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

# 9 **MAIATZA**
MAYO

Pasioa *Pasión*



**KAREL MARK CHICHON**
**Zuzendaria** ˚ Director



**ANNE GASTINEL**
**Biolontxeloa** ˚ Violonchelo

## **Egitaraua** ^ Programa

## I

### **ANDRIS DZENITIS** (1978)

**Postludium. Ice** [12’]*
Argitaletxea / **edita: Musica Baltica**

### **ERICH WOLFGANG KORNGOLD** (1897-1957)

**Concierto para violonchelo y orquesta, Op.37** [13’]*
Argitaletxea / **edita: Schott Music GmbH & Co, Kg**

I. Allegro moderato ma con fuoco

## II

### **SERGEI PROKOFIEV** (1891-1953)

**Romeo y Julieta; Ballet en cuatro actos,**
**Op.64 (Selección de K.M. Chichon, 2023)** [39’]
Argitaletxea / **edita: Internationale Musikverlage Hans Sikorski**

Montescos y Capuletos (Suite 2, n°1)
La joven Julieta (Suite 2, n°2)
Madrigal (Suite 1, n°3)
Minueto (Suite 1, n°4)
Máscaras (Suite 1, n°5)
Escena de balcón (Suite 1, n°6)
Muerte de Tibaldo (Suite 1, n°7)
Romeo ante la tumba de Julieta (Suite 2, n°7)

* **Lehen aldiz interpretaturiko obra /**
Obra interpretada por primera vez

Euskadiko Orkestraren zuzendari moduan gaur debutatuko duen **Karel Mark Chichon** bi herrialderen artean egon da beti, Erresuma Batuaren eta Espainiaren artean. Londreseko Royal Academy of Music-en egin zituen ikasketak eta egun erakunde horretako *fellow*etako bat da. 2012an, gainera, Britainiar Inperioko Ordenaren ofizial izendatu zuten, bere lorpen profesionalengatik. Hala ere, gibraltartarra izanik, betidanik izan du harreman estua Espainiako hegoaldeko bizitza musikalarekin, Sevillakoarekin eta Kanaria Handiko Las Palmasekoarekin, bereziki, eta azken horretako orkestrako zuzendaria da 2017az geroztik. Bere musika-horizonteak, dena den, askoz urrutiago iristen dira: mundu osoan orkestrak zuzentzen aritzeaz gain, Grazeko eta Saarbruckeneko orkestra sinfonikoetako zuzendari nagusia izan da, baita Letoniako Orkestra Sinfoniko Nazionalekoa ere, 2009 eta 2012 bitartean. Kargu horretan zegoela, hain zuzen, ezagutu zuen **Andris Dzenitis**en musika.

1978an Rigan jaio zen Dzenitis Letoniako konpositore ospetsuenaren ikaslea izan zen, Peteris Vasksena. Dzenitisen ekoizpenean maisu horren eragina nabaritu daitekeen arren, estilo propioa garatu du: Chichonen arabera, goi-mailako mezu emozionala eta artistikoa ezaugarri ditu. ***Postludium. Ice*** Chichonek berak estreinatu zuen 2009an Letoniako Orkestra Nazionalarekin, eta *Dauka* operatik eratorritako lan bat da. Egilearen arabera, «opera horren posludio bat ez ezik, lan osoaren laburpena ere bada, gaiaren motibo eta sinbolo nagusiak baliatzen baititu: amaren maitasunaren epeltasuna, naturaren zorioneko handitasuna, ezintasun traketsa eta gure inguruan daudenak entzuteko gogorik eza. […] Operaren amaierak bakarrizketaren forma du, baina testurik gabe: itsasoaren askotariko tenperaturak erregistratzeko topalekua da, ezezagunera eta atzemanezinera eramaten gaituen izotzezko gainazal hauskor liluragarrira iritsi arte. Gizakien hazkuntza espiritualeko erreferentearen antzera, *Dauka*ren bidea estasia eta zorigaitza da›.

**Erich Wolfgang Korngold**ek 37 urte zituen Max Reinhardtek Hollywoodera gonbidatu zuenean, *Uda-gau bateko ametsa* bere film berrian parte hartzera, Mendelssohnen jatorrizko musika doitu zezan. 1934. urtea zen eta dei horrek aukera eman zion urruntzeko Austrian gero eta arriskutsuago bihurtzen ari zen antisemitismotik. Atzean utzi zuen konposizioaren gazte prodijioaren ospe zoragarria: Straussek, Puccinik, Sibeliusek eta Mahlerrek berak ere laudatu zuten –azken horrek jeinutzat jo zuen 9 urte eskaseko mutikoa zenean–. Korngoldek 20 urte zituenerako bi opera idatzita zituen, eta orkestra handiek bere obrak interpretatzen zituzten, Leipzigeko Gewandhaus eta Vienako Filarmonikoa kasu.

Bere ekoizpena goitik behera aldatu zen Kalifornian, garai horretan loratzen ari zen zinemarako musika ezagutu zuenean. Konpositore askorentzat genero txiki bat zen; Korngoldek, aldiz, ahalik eta musika onena sortu nahi izan zuen irudiaren zerbitzurako. «Nahi izanda ere, ezingo nuke nire mailatik behera dagoenik idatzi›, esaten zuen. Konposatu zituen 23 soinu-bandak (Warner Broserako ia guztiak) hain sofistikazio eta maisutasun tekniko handikoak zirenez, 1930eko eta 1940ko hamarkadetako zinemako musikak ezaugarri duen kalitate-maila altua ezartzen lagundu zuten ezinbestean. Gainera, urte hauetako soinu banda ugarik hari zor diote daukaten ukitu vienarra, Korngoldek eta erdialdeko Europako beste musikari errefuxiatu batzuek Estatu Batuetara eraman zuten ñabardura estilistikoa.

Zenbait filmetarako bere partiturek Vienako bere iragan loriatsutik edan bazuten (T*he Sea Hawk*, *Captain Blood* edo *Robin Hood* filmetarako idatzitakoak kasu), kontzertu-aretoetarako idatzi zituen lanak zinemarako egin zuen musikaz ere elikatu ziren. Horren adibiderik ezagunena da ***Biolontxelorako kontzertua***: film baten oihartzunak bildu ez ezik, kontzertua *Deception* filmaren funtsezko zati bat da. Bette Davis protagonista duen 1946ko

melodrama *noir* famatu horretan kontatzen da pianista baten, biolontxelista baten eta konpositore baten arteko maitasun-triangelu musikala. *Biolontxelorako kontzertua*k entitate propioa dauka filmean. Partitura hori konpositoreak biolontxelistari eskaintzen dio asmo gaiztoekin. Paul Henreid aktoreak interpretatu zuen pantailan oso modu sinesgarrian, nahiz eta benetako grabazioa Eleanor Allerrek egin zuen, Hollywood String Quarteteko kide zenak.

Lan laburra da, 13 minutu eskasekoa, baina miniaturako kontzertu horrek kontzertu erromantiko baten ia pasarte guztiak zeharkatzen ditu, melodia liriko sutsuetatik pasarte dramatiko larrietara, ohiko hiru mugimenduak gogorarazten dituen egitura batekin, baita solistaren kadentziekin ere. Horregatik, moldaerraztasun handiko interprete bat behar du, esaterako **Anne Gastinel** biolontxelista prestigiotsu frantziarra. Besteak beste, Nicholas Angelich edo Gil Shaham artisten ohiko kolaboratzailea izan da, eta Lyongo Kontserbatorioko biolontxelo-irakaslea da.

1934an, San Petersburgoko Kirov antzokia negoziazioetan hasi zen **Sergei Prokofiev**ekin, ***Romeo eta Julieta*** istorioan inspiratutako ballet bat sor zezan. Enkargu hori, hain zuzen, iritsi zitzaion Sobietar Batasunera behin betiko itzultzea pentsatzen ari zenean, bi hamarkada erbestean igaro ondoren, Estatu Batuetan, lehenik, eta Europan, gero. Bere herrialdean ere artista izateko grinak bultzaturik, eta bere etapa modernistakoa baino errazagoa zen estilo batekin, Prokofievek balentria bat lortu zuen hiru hilabetean soilik: bere partiturarik unibertsalena idaztea. Dena den, balletaren estreinaldira arteko bidea, konposizioarena ez bezala, ez zen ez erraza, ez arina izan. Prokofievek honela gogoratzen zuen urte batzuk geroago: «Ni gai liriko batean nengoen interesatuta. *Romeo eta Julieta* iradoki genuen, baina Kirovek azkenean atzera egin zuen, eta beste kontratu bat sinatu nuen Moskuko Bolshoi antzokiarekin. 1935eko udaberrian, Radlovek (Sergei Radlov, Shakespeareren obren oso antzerki-zuzendari ospetsua) eta biok argumentua landu genuen, koreografoari (Leonid Lavrovsky) ballet-teknikari buruzko zalantzak galdetuz. Udan idatzi genuen musika, baina Bolshoik adierazi zuen dantzatzeko ezinezkoa zela eta kontratua suntsitu zuen›. Gorabehera ugariren ostean, balleta Brnon estreinatu zuten 1938ko abenduan.

Hiru urteko impasse horretan, Prokofievek orkestrarako bi suite bildu zituen balletaren pasarte nagusiekin, idatzita zeukan musikari irtenbide bat aurkitu nahian. Bi suite horiek eta 1946an sortu zuen hirugarren bat nabarmendu egin ziren gerora konpositorearen errepertorio sinfonikoan, bere zazpi sinfoniak baino askoz ere ospetsuagoak baitira. Ukrainarrak arrakastarako formula aurkitu zuen zabaltasun liriko handiko melodismoaren jarioa ahalbidetzean. Baliteke aurreko sorkariak bezain sofistikatua ez izatea, baina originaltasun harmoniko eta erritmiko ukaezinak ditu, eta orkestraren tratamendua maisutasunezko efektibitatez egiten du. Eta, batez ere, lortu zuen bere izaera musikal nahasezina uztartzea Shakespeareren lanaren esentziarekin, sentimenduak argitasunez marraztean, hala nola, xalotasuna, haserrea, jelosia edota desesperazioa; eta sakon ehundu zituen pertsonaien gorabeherekin eta psikologiarekin. *Julieta gaztea* eszenarako idatzi zuen musika, adibidez, Prokofiev da bete-betean, baina, aldi berean, nerabe bati buruz inoiz egindako soinu-erretratu zorrotzenetako bat da.

Gaur entzungo ditugun pasarteen hautaketak istorioaren kronologia naturalari eusten dio: gazte maitaleen eta Montesco eta Capuleto familia aurkarien aurkezpena, maskara-dantza zoragarria, balkoiaren eszena edo Tibaldoren heriotza eta amoranteen zorigaiztoko amaiera.

Mikel Chamizo

**Karel Mark Chichon,** que debuta hoy al frente de Euskadiko Orkestra, es un director con un pie en Reino Unido y otro en España. Estudió en la Royal Academy of Music de Londres, a la que sigue ligado como Fellow, y en 2012 recibió el título de Oficial de la Orden del Imperio Británico por sus logros profesionales. Pero siendo gibraltareño, ha mantenido siempre un gran contacto con la vida musical del sur del país, especialmente con la de ciudades como Sevilla y, particularmente, Las Palmas de Gran Canaria, cuya orquesta dirige desde 2017. Sus horizontes musicales, no obstante, llegan mucho más lejos: además de dirigir orquestas por todo el mundo, ha sido director principal de las sinfónicas de Graz y Saarbrucken, y entre 2009 y 2012 lo fue de la Orquesta Sinfónica Nacional de Letonia. Fue, precisamente, mientras ejercía este cargo, cuando entró en contacto con la música de **Andris Dzenitis.**

Nacido en Riga en 1978, Dzenitis fue alumno del más famoso compositor de Letonia, Peteris Vasks. Pero aunque la influencia de su maestro es rastreable en su producción, Dzenitis ha desarrollado un estilo propio que, según Chichon, se caracteriza por su "elevado mensaje emocional y artístico". ***Postludium. Ice*** la estrenó el propio Chichon en 2009 al frente de la Nacional de Letonia y es una obra derivada de la ópera *Dauka*. Según el autor, "es a la vez un posludio de esta ópera y resume toda la obra, al hacer uso de sus principales motivos temáticos y simbólicos: la calidez del amor materno, la majestuosidad dichosa de la naturaleza, la torpe incapacidad y la falta de deseo de escuchar a quienes están a nuestro alrededor. [...] El final de la ópera está concebido como un monólogo sin texto: como un punto de encuentro en el que se registran la variedad de temperaturas del mar, hasta llegar a la seductoramente frágil cubierta de hielo que conduce a lo desconocido e inaprensible. Como un referente del crecimiento espiritual humano, el camino de Dauka es éxtasis y tragedia".

**Erich Wolfgang Korngold** tenía 37 años cuando Max Reinhardt le invitó a unirse a él en Hollywood para trabajar en su nueva película, *El sueño de una noche de verano,* adaptando la música original de Mendelssohn. Corría el año 1934 y la llamada le permitía alejarse del peligroso cariz que estaba adoptando el antisemitismo en Austria. Atrás dejaba un formidable renombre como joven prodigio de la composición, alabado por Strauss, Puccini, Sibelius e incluso Mahler, quien le tildó de "genio" cuando tenía solo 9 años. A los 20, Korngold ya había escrito dos óperas y orquestas como la Gewandhaus de Leipzig o la Filarmónica de Viena interpretaban sus obras.

En California, su producción dio un giro radical al encontrarse frente a un género en plena floración por aquellos años: la música para el cine. Un género menor para muchos compositores, pero no para Korngold, quien quiso crear la mejor música posible al servicio de la imagen. "Aunque quisiera, no podría escribir por debajo de mi nivel", afirmaba. Las 23 bandas sonoras que compuso, casi todas para la Warner Bros, son de tal sofisticación y maestría técnica que ayudaron decisivamente a establecer el altísimo estándar de calidad que es característico de la música cinematográfica de los años 30 y 40. Y explica también el inconfundible toque vienés de tantas bandas sonoras de aquellos años, un matiz estilístico que Korngold y otros músicos refugiados centroeuropeos llevaron consigo a los Estados Unidos.

Si sus partituras para filmes como *El halcón del mar, El capitán Blood* o *Robin Hood* bebieron de su glorioso pasado vienés, sus posteriores obras para la sala de conciertos se alimentaron, a su vez, de la música que había escrito para el cine. El más célebre ejemplo es su ***Concierto para violonchelo***, que no solo recoge ecos de una película sino que la obra de concierto es parte fundamental del filme. Se trata de *Engaño*, el célebre melodrama noir protagonizado por Bette Davis en 1946 que gira en torno a un triángulo amoroso musical entre una pianista, un violonchelista y un compositor. El *Concierto para violonchelo* es una obra con entidad propia dentro de la película, una partitura que el compositor dedica al violonchelista con fines siniestros y que es interpretado en pantalla por el actor Paul Henreid

de forma muy convincente, aunque la verdadera grabación fue realizada por Eleanor Aller, componente del Hollywood String Quartet.

Aunque se trata de una obra breve, de apenas 13 minutos, este concierto en miniatura atraviesa casi todos los paisajes de un concierto romántico, desde las pasionales melodías líricas a los agitados pasajes dramáticos, con una estructura que evoca los tradicionales tres movimientos e incluso las cadencias del solista. Es por eso por lo que requiere una intérprete de gran versatilidad como **Anne Gastinel,** prestigiosa violonchelista francesa, compañera de escenario habitual de artistas como Nicholas Angelich o Gil Shaham, y profesora del instrumento en el Conservatorio de Lyon.

En 1934, el Teatro Kirov de San Petersburgo comenzó a negociar con **Sergei Prokofiev** la creación de un ballet inspirado en la historia de ***Romeo y Julieta***, un encargo que llegó precisamente cuando el compositor estaba considerando su regreso definitivo a la Unión Soviética tras dos décadas expatriado, primero en Estados Unidos y luego en Europa. Impulsado por el entusiasmo de probarse como artista en su país y con un estilo más accesible que el que había practicado durante su etapa modernista, Prokofiev logró la proeza de escribir, en tan solo tres meses, la que llegaría a ser su partitura más universal. Pero el camino hasta el estreno del ballet no fue tan fácil ni fluido como su composición. Prokofiev lo rememoraba años después: «Yo estaba interesado en un tema lírico. Se sugirió *Romeo y Julieta*, pero el Kirov finalmente se echó atrás y firmé un nuevo contrato con el Teatro Bolshoi de Moscú. En la primavera de 1935, Radlov [Sergei Radlov, un director teatral muy reputado en las obras de Shakespeare] y yo trabajamos en el argumento, consultando con el coreógrafo [Leonid Lavrovsky] las cuestiones de la técnica del ballet. La música fue escrita durante el verano, pero el Bolshoi declaró que era imposible de bailar y el contrato se rompió›. Tras muchas vicisitudes, el ballet se estrenó finalmente en Brno, en diciembre de 1938.

Durante este impás de tres años, Prokofiev recopiló dos suites orquestales con los principales números del ballet para intentar dar salida a la música que ya estaba escrita. Estas dos suites, junto con una tercera que realizó en 1946, encontrarían un lugar destacado en el repertorio sinfónico, superando ampliamente en popularidad a sus siete sinfonías. El ucraniano dio aquí con la fórmula del éxito al dejar fluir un melodismo de amplio vuelo lírico, quizá menos sofisticado que en la mayor parte de su producción anterior pero de innegable originalidad armónica y rítmica, con un tratamiento de la orquesta de una efectividad magistral. Y, sobre todo, logró unir su inconfundible personalidad musical con la esencia de la obra shakesperiana, dibujando con lucidez sentimientos como la inocencia, la ira, los celos o la desesperación, y tejiéndolos profundamente con las vicisitudes y la psicología de los personajes. La música que escribió para la escena de *La joven Julieta,* por ejemplo, es Prokofiev en estado puro y, sin embargo, es también uno de los retratos sonoros más vívidos que se han hecho de una adolescente.

La selección de números que escucharemos hoy están organizada respetando el curso natural de la historia, desde la presentación de los jóvenes amantes y los clanes enfrentados de Capuletos y Montescos, el brillante baile de máscaras, la escena del balcón o la muerte de Tibaldo, para concluir con el fatal desenlace que el destino depara a los enamorados.

Mikel Chamizo

**Hurrengo Abonu kontzertua** · Próximo concierto de Abono

Gainditzea
*Superación*
⟶ Shostakovich · Chopin

**EKAINA 5**
JUNIO
**19:30**

**SARRERAK** / ENTRADAS
**10€ < 38€**
- euskadikoorkestra.eus
- baluarte.com
- Leihatila / Taquilla

AZKEN ORDU GAZTEA! 10€



# EUSKADIKO ORKESTRA 22—23

**ROBERT TREVIÑO**
**Zuzendari titularra** ˚ Director titular

## Tragedia
Shostakovich · Falla

## Mamuak *Fantasmas*
Tchaikovsky · Carpenter

## Carmina Burana
Orff · Strauss

## Handiena *La más grande*
Bruckner · Gerenabarrena

## Gure patua *Nuestro destino*
Beethoven · Wagner · Shostakovich

## Esnaera *Despertar*
Mahler · Lazkano

## Antsietatea *Ansiedad*
Adams · Walker · Rachmaninoff

## Arimatik *Desde el alma*
Elgar · Veprik · Beethoven

## Pasioa *Pasión*
Prokofiev · Dzenitis · Korngold

## Gainditzea *Superación*
Shostakovich · Chopin

## SARRERAK / ENTRADAS

A partir de **10**€ -tik gora

**Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak** / Tarifas especiales: consultar descuentos

BILBO. Euskalduna - DONOSTIA. Kursaal - GASTEIZ. Principal - IRUÑA. Baluarte

19:30

**euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32**